

ZERUKO IZARREI BEGIRA

2010eko ekainaren 29a

Eguneroko maitea:

A zer eguna gaurkoa! Oraindik ere nerbioak dantzan dauzkat. Ezin dut lorik egin eta hementxe nago, zuri idazten, Hendaiatik atera eta Parisera eramango nauen trenean. Nirekin batera uda Frantzian pasatzera datozenak dagoeneko lo daude eta ez dut beste erremediorik isilik egotea baino.

P.D.: Sssh!!

2010eko uztailaren 1a

Hasteko, barkatu atzo ez idazteagatik, baina oso egun eroa izan nuen. Gaua trenean eman ondoren, azkenean iritsi ginen Parisa, gure helmugara. Ezin duzu imajinatu zein hiri ederra den, aroma gozo eta bista ederrekoa. Iritsi bezain laster, han nuen familia berria zain, nire izena jartzen zuen karteltxo bat eskuan zutela.

Tren geltokitik etxe handi batera eraman ninduten. Bertan, maletak desegin eta afaldu ostean ohera joan nintzen.

Gaur, osteguna, gurasoek gosari ederra prestatu dute nire omenez, eta oso ondo pasa dugun denok. Frantzian ohikoak diren tostada txigortuak jan ditugu, oso ukitu berezikoak, marmeladaz bakoitzaren izena baitzeukaten idatzita. Horrela jakin dut nire adineko neska Daphne dela, bere anaia Iacob, eta gurasoak Serge eta Irina direla.

2010eko uztailaren 3a

Hitz bakarra, haluzinagarria!

Gaur Notre Damengo katedrala ikusten izan gara. Katedralaren barrualdean izan gara bisita gidatuan. Argazki ugari atera ditut mugikorrarekin. Daphnek ere eraman du bere kamera, eta katedralaren gun ezkutuen eta harrigarrietan ere atera ditugu argazkiak.

Oharra! Ea ez zaidan ahazten argazkiak etxera bidaltzea ondo nagoela esateko!

2010eko uztailaren 4a

Eguna etxean eman dugu gaur. Ezagutzen ditudan joko guztietan ibili gara, eta a zer algarak! Dagoeneko gaueko hamaika eta erdiak dira. Hortaz, lotara!

2010eko uztailaren 5a

Leher eginda nago. Begiak ixtear dauzkat, beraz labur kontatuko dizut gaurkoa. Lehen eguna izan dut ikastaroan eta ziur naiz buruhauste bat baino gehiago emango didala frantsesak.

Irakasleak lodi baino lodiagoa den gramatikako txostena mahai gainean uztean, berehala ilundu zait aurpegia (edo hori uste dut behintzat). Landu behar ditugun gaiak zailenak egiten zaizkidanak dira eta. Ulertzeko eta hitz egiteko ez baitaukat arazorik, baina idazteko bai. Izan ere, horrenbeste tilde mota desberdin daude! Batekin nahikoa ez eta hiru!.

P.D.: Les verbes avoir et être, izango ez ditut bada buruhaustek!

2010eko uztailaren 8a

Nire lehen astea Frantzian eta gehiagorako irrikan nago. Ikastaroan ere lagunak egin ditut eta Daphnerekin geroz eta hobeto moldatzen naiz.

Dagoeneko nire ahizpa bezalakoa da. Berari ere animaliak gustatzen zaizkio eta ia beti elkarrekin ibiltzen gara.

Nire herriko lagunak atzo deitu zidaten ea zer moduz nengoen galdetzeko. Atseginez hartu nuen deia. Esan nien ez arduratzeko nitaz, oso ondo zaintzen nautela Parisen. Daphne ere ezagutu zuten, berarekin bainengoen deitu zidatenean. Itzultzaile lanak egin nituen Daphnek hitz egiten zuenean. Berandutzen ari zait eta lo egin beharra dut, agur, beraz. Oharra! Hurrengo astelehenean gramatika azterketa dugu.

2010eko uztailaren 9a

Azkenean ostirala! Bihar Daphnek, Iacobek eta haien lagunak Eiffel dorrea ikustera eramango naute.

Egun ahaztezina izango da!

2010eko uztailaren 10a

Ezin dut sinetsi gertatu zaidana.

Esan bezala, Eiffel dorrea ikustera eraman naute Daphnek eta Jacobek. Baina inork espero ez zuen gauza bat gertatu zaigu. Dorrera igotzeko igogailua hartzera gindoazenean, 1.665 eskailera gehiegi baitira, ilaran azkenak Jacob eta ni ginenez, ez digute igogailura sartzen utzi. Beteta omen baitzegoen. Han joan dira Daphne eta bere laguna igogailuan gora, eta gu behean.

Igogailuko arduradunari galde egin diogu ea noiz izango zen hurrengo txanda. Gaurko azkena galdu dugula esan digu. Egia izango da! Zorte txarra ekarriko dut!

Hori ikusita, Jacobek ospe handiko kafetegi batera eraman nau.

Uste dut Eiffel dorrea ikustea baino ederragoa dela berarekin hitz egitea. Hain berea den hizkera leunak oilo ipurdia jartzen dit. Iritsi nintzenetik inoiz ez dut horrela hitz egin berarekin, eta espero dut hemendik aurrera gehiagotan egitea.

Burua bueltaka dabilkit, tximeletak sabelean. Zer ote da?

2010eko uztailaren 11a

Atzo, gaur eta noiz arte? Begirada bat, ilusio bat. Zer egin behar ote dut bere atentzioa neureganatzeko.

Izarrei begira nago. Ez nuke haietako bat izan nahi. Oso urrun baitaude elkarrengandik, ezin elkar ikusi, ezin elkar ukitu.

Gelako leihoaren albo batean eserita nago, zer idatzi pentsatuz, baina ez dut ezer idaztekorik, argi baitakit Iacobi buruz gehiago hitz egiten badizut, burua lehertuko zaizula. Agur!

P.D.: Je suis, tu es, il/elle est...

2010eko uztailaren 12a

16, ostirala, gerturatzen ari da. Iristea nahi ez nukeen eguna, joateko eguna. Azken egunotan buruan bueltaka dabilkit Iacob. Bere ile beltza, bere begi berdeak eta bere puntu misteriotsua.

Gogoan dut gaur Daphnerekin izan dudana elkarrizketa, honela esan baitit:

- Nire irudipena da ala azken egunotan alaiago zabilta?
- Arrazoi duzu, bai, ez dakit zer gertatzen zaidan, baina...
- Ui, ui, ui. Honek maitasun itxura du!

Ez diot beste ezer esan, baina badakit badakiela Iacob gustatzen zaidala.

P.D.: Azterketa ongi atera zait!

2010eko uztailaren 14a

Amaitu da. Ez dugu frantses akademia berriro zapalduko aurtengoz.

Denbora gutxi pasa izan arren, izugarrizko txera hartu diogu elkarri.

Irakasleak eta ikasleok bildurik festatxo bat ospatu dugu arratsalde osoan zehar. Bertan malkoak izan dira nagusi; badakit ,ordea, ez dela gure adiskidetasunaren amaiera, harreman luze baten hasiera baizik.

Bihar eguna libre izango dugu gure familiez agurtzeko.

Ezinezkoa da, benetan pasatu ote dira bi aste? Honetan pentsatze

hutsarekin bi perla jaitsi zaizkit masailetan behera, egunerokoa bustiz.

P.D.: Bi egun barru nire gurasoak ikusiko ditut, egia esan, ez dut haien hutsunea nabari.

2010eko uztailaren 15a

EZ, EZ, EZ... Begiak lausotuta dauzkat, izarrak ezin ikusi. Ametsa ote edota

bihar dagoeneko banoa? Non izango dira izar uxoa nire desirak betetzeko?

Malkoak lehortu eta Daphneren logelara joango naiz azken agurra ematera.

Bihar goizean goiz, bostak aldera, tren geltokira joan beharko dut; azken aldiz ikuspegi eder hauez gozatuz.

2010eko uztailaren 16a

Begiak gorri eta begirada galdua, horrela atera naiz hamabost egunez nire etxea izandakotik. Geltokira eraman gaituen autobusean egunerokoaren azken orrialdeak asteotan ezagutu eta jada horrenbeste maite ditudan izenez bete ditut: Iacob, Daphne, Irina, Serge...

Errusiar mendi bat izan da nire bihotz gaixoa egunotan, batzuetan pozez zorutzen eta besteetan, malkoei ezin eutsita. Maitasuna ere estreinatu dut, berak ere maite nauen ez badakit ere. Hitz eman diot neure buruari negar gehiago ez dudala egingo, nahiz eta ia ziur jakin, ezingo dudala bete.

Une batekin geratu beharko banu, Eiffel dorrea ikusi gabe geratu nintzenekoa aukeratuko nuke. Iacobek liluratu ninduen egunarekin, inolako zalantzarik gabe.

Trenera igo garenean, ziztu bizian eseri naiz leihoaren ondoan, nire aurtengo bizipenak birgogoratzeko: Lehenengo, Notre Damengo katedrala; jarraian, ikastaroa eta Eiffel dorreko gertakizuna; eta nola ahaztu azkeneko egunetako agurrez.

Halako batean mutil bat ikusi dut txartela pasatzeko makinatik korrika, bere atzetik neska bat duela. Nire gorputza tentetu eta eskuak kristalerantz hurbildu ditut. Biak nire bagoiaren parean geratu dira, niri begira.

Dena oso azkar gertatu da. Mutilak praken atzeko poltsikotik orri tolestu bat atera du. Neskak begi keinu bat egin dit, eta nik irribarre zabal bat eskaini diot. Orrian esaldi bat irakurri ahal izan dut, maitasun esaldi bat. Maite nau. Ezin izan ditut bihotz taupadak kontrolatu. Eskuak dardarka, ahalik eta azkarren, egunerokoa ireki eta nik ere mezu bat erakutsi diot: " MAITE ZAITUT, IACOB!"

Maitasunez, Katyk

Garagartza plaza 10, 2.A. 943887605

Zeruko izarrei begira.

Katy

Jakintza Ikastola